

P R A N T Z I S K O T A R R A

Urrundik, agur...

Urrundik,
gero ta urrunagotik,
agur, Maite, agur iri;
ta agur bizitz lor-ezari,
ederren zeikeanari...

Gogoan
zeukanat nola beingoan
alkarri,
begiratuz zoragarri,
genion
itzeman alkar-zorion...

Ai-bañia!,
ez omen naun ire diña,
ez aberatsa i aña...

Ik baietz...;
baña gurasoak ezetz,
urkatuz gure poz ta amets...

Ta, jai ene!,
norabaita gorde aune...
Nun agokit, nun, Edurne?

¡Nerea
bear unaken umea,
noraño
eraman aune, Maiteño,
nerekin
gogaitu ta aztu adin!?

¡Ai ene!
Nun agokit, nun, Edurne,
gau t'egun nigana erne?...

Alperrik,
oiuka, etsi-eziñik,
itaz galdetzen diñat nik...

Yadanik
bakoitza bere bidetik
jarraitu bear, urrundik...,

agurka,
malkoak txuka ta txuka,
amets gozo danen aurka...

...¡Bai, agur,
ene Maitagarri xamur,
Zorion-emalle labur,
len emalle, orain lapur...
Agur, bai, urrundik, iri;
ta agur... galdu-bizitzari,
onena izango zanari
baña zertu-gabe itzali...

urrundik,
gero ta urrunagotik...

1951-I-20